



Arartekoaren ebazpena, 2011ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio araudiak ezartzen dituen berme guztiak aplikatu ditzala, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarri eta gutxieneko bermerako laguntza prestazio bat atzeraeraginezko ondorioekin eten den kasu batean.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailleak diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gutxieneko bermerako laguntza prestazioa jasotzen ditu. 2010eko urtarrilaren 28an Gasteizko Udalak Udaltzaingoaren parte bat jaso zuen. Horren bitartez, jakinarazi zioten erreklamatzaillea beste pertsona batekin bizi dela eta, dirudienez, berak ez zuen horren berri eman (18/2008 Legearen 19.1.f artikuluan betebeharrak hori xedatzen du). Txostenean bizilagun baten testigantza jaso da; horrek ziurtatzen du erreklamatzailleak harreman bat duela gizon batekin eta berarekin bizi dela. Testigantzaren arabera, harreman hori eztabaida gogorren iturria da eta bizilaguna erreklamatzailleak behin baino gehiagotan jaso dituen tratatu txarren lekukoa izan da.

Hori dela eta, 2010eko martxoaren 22an erreklamatzailari entzunaldi izapidea burutzeko eskatu zioten haren gizarte eta familia egoerari buruzko alegazioak aurkeztu zitzaizkion. Ez zuenez inolako alegaziorik aurkeztu, apirilaren 9an eteteko proposamena eman zen 2009ko abuztuaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin. 2010eko apirilaren 23an ebazpen bat eman zen zentzu horretan. Prestazioak eteteaz gain, ebazpen-idazki beraren bitartez jakinarazi zioten okerreko kobrantzengatik 4.918,92 euroko zorra pilatu zitzaizkion. 2010eko ekainaren 15ean prestazioak berriro aktibatze eskatu zuen eta, baldintzak betetzen zirela egiaztatu eta gero, ekainaren 16an prestazio horiek berriro aktibatu egin ziren. Okerreko kobrantzengatik pilatutako zorra mantendu zen.

2. Zentzu horretan kexa bat jaso dugunez, erakunde honek uste du bi alderdi azpimarratu behar direla: alde batetik, erreklamatzaillearen bizikidetasun egoera egiaztatze erabilitako bitartekoak eta Udaltzaingoaren txostena ikusita atera daitezkeen ondorioak eta, bestetik, modu okerrean jasotako zenbatekoak kobratzeko jarraitutako prozedura.

Arabako Foru Aldundiari eskatu genion jakinarazteko zein arrazoi direla-eta ondorioztatu zuen erreklamatzailleak dagoeneko ez dela pertsona horrekin bizi, bai eta modu okerrean jasotako zenbatekoaren kobrantza izapidetzeko jarraitutako prozedurari buruzko informazioa helarazteko ere. Udaltzaingoak egindako txostenaren edukiaren eta erreklamatzailari eskainitako entzunaldi izapidearen erantzunik ezaren berri eman ziguten. Ez zen ezer aipatu modu



okerrean jasotako zenbatekoaren ondoriozko zorrari dagokionez jarraitutako izapideen inguruan.

Gogoetak

1. Etetearen arrazoia 26.1.b artikulua barruan badago ere, 19.1.f artikulua betebeharra ez betetzeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak esku artean duen informazioa, zeinen arabera erreklamatzailerak eta pisuko beste errentariaren artean bikote harreman bat dagoela ondorioztatu duen, bizilagun bakar baten testigantza oinarrituta dago eta, argi dago, pertsona horrek ez duela erreklamatzaileraren etxebizitzan elkarrekin bizi diren pertsonen egoera erreala ezagutzen. Beraz, kontua ez da izaera materiala duen etete bat, soilik formala baita, zantzetan oinarrituta dagoena; izan ere, aldundiak jakinarazi zigun moduan, *“baldintzak berriro egiaztatu eta gero”*, 2010eko ekainaren 16an, prestazioak berriro aktibatu ziren.
2. Ararteko erakundeak egin zuen informazio eskaerari erantzunez, Arabako Foru Aldundiak bidalitako idazkian eteteak hizpide duen testigantza egin zuen bizilagunak zera dio *“(…) en esa vivienda moraban bastantes personas desconociendo el número exacto, todos ellos adultos y que por ruidos y mala convivencia causaban problemas al resto de vecinos. Que lo más preocupante, era que se escuchaban las agresiones que el llamado YYYY propinaba a la llamada XXXX. Que mostrada una foto de Kheira por parte de estos agentes a la persona informante, la reconoció sin ningún género de dudas como la mujer que vive junto con YYYY como pareja y a la que éste agrede habitualmente. Que así mismo, recordaba, que en el verano, sin poder precisar la fecha exacta, siendo las dos de la madrugada aproximadamente, observó cómo después de una discusión, YYYY tiraba ropa de mujer por la ventana y cómo seguidamente sacaba a XXXX de la vivienda, arrastrándola por el pelo hasta la calle, donde la dejó tirada y permaneciendo en la calle durante unas tres horas esperando a que él le abriera la puerta”*.

Testigantza horren ondorioz, eraso pairatu zuen emakumeari aipatu ditugun prestazioak eten egin zizkieten. Ez dakigu informazio hori erabilgarria izan ote zen tratatu txarren aurkako protokoloak aktibatzeke (Etxeko esparruan tratatu txarren edo sexu indarkeriaren biktimak diren emakumeei emandako arreta hobetzeko erakundearen arteko akordioa); Arabako Foru Aldundiaren erantzunean ez baita aipatzen inolako neurririk zentzu horretan eta, hori informazio eskaeraren helburua ez zen arren, ez da horri buruzko galderarik egin baina gertakaria oso larria denez, berehalako jardura eskatzen zuenez eta erakunde horren praktika ezagutzen dugunez ez daukagu zalantzarik eta ziur gaude jardura hori burutu zela.



3. Ustezko bikote harreman bat zeukatela 2010eko urtarrilaren 28an jakinarazi zen arren, etetearen atzeraeraginezko ondorioak 2009ko abuztuaren 1ean hasten dira. Hau da, poliziaren txosten berriari esker, Arabako Foru Aldundiak uste du prestazioak eman zirenean (2009ko uztailaren 14an) bikote harreman hori bazeukatela. Txosten horretan zera adierazi baita "(...) *podemos confirmar que, tras mantener conversación con uno de los vecinos del inmueble, que esta pareja lleva algo más de un año viviendo en el citado inmueble*". Bizilagun bakarraren testigantza nahikoa da bikote harreman bat dagoela ondorioztatzeko, bai eta harreman horren hasiera data ezartzeko ere. Arrazoi hori dela eta, eteteak atzeraeraginezko ondorioak ditu.

Dena den, bikote harremana daukatela ziurtatzeko froga nahikorik ez daudela uste badugu, harreman hori 2009ko abuztuaren 1ean existitzen zela pentsatzeak ez dauka inolako oinarririk. Errepikatu nahi dugu berriro ere Udaltzaingoak egindako txostenak soilik jasotzen duela etxe bateko intimitateari lotutako gertakarien inguruan bizilagun bakar batek duen iritzi edo pertzepzio subjektiboa eta hori ezin da inola ere erabili froga gisa eskubide baten etetea gauzatzeko.

Gure ustez, garrantzitsua da gogoraraztea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 137.3. artikuluan honako hau ezartzen duela: "*Agintaritza aitortzen zaien funtzionarioek egitateei emandako sinestamenduek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute; baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak aldezteko.*".

Erabateko froga-izaera herri-administrazioak egiazkotzat dituen datuak islatzen dituzten agirientzat mugatu behar da. Beraz, poliziaren txostenak funtzionarioak *in situ* antzemandako gertakari objektiboak froga ditzake. Eraginkortasuna ezaugarri hori ez daukaten egitateetara hedatzerakoan egileari adierazitakoa sinetsarazi dioten elementuak edo frogak eskatu behar dira. Kasu honetan polizia-funtzionarioak ezin izan du *in situ* egiaztatu erreklamatzailaren eta bizilagunak aipatutako pertsonaren artean harreman bat zegoenik eta are gutxiago harremanaren iraupena zehaztu.



Jurisprudentzia asko dago poliziaren txostenen baliozkotasunaren inguruan. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2003ko irailaren 17ko epaian, esku artean dugunaren antzeko kasu bati zegokionez, zera adierazi zuen: *"Aún siendo muy esquemático el discurso que la Administración emplea para relacionar una mutación convivencial y la pérdida o suspensión del derecho, no es tal el objeto del debate ni la clave de la estimación del recurso, como decimos, sino que la acreditación de la primera no puede ser tan vaga y abstracta como en el expediente se asume, en base a una sola y no circunstanciada información policial, dependiente de la propia Corporación Local. En efecto, ni tal información de la Policía Local responde de manera específica a lo que se le solicita, que supone la necesaria identificación de las personas convivientes y la fecha desde la que lo hacen, ni ofrece ni menciona siquiera una fuente fidedigna y sólida de averiguación, -gestiones con los vecinos-, (qué y cuantos vecinos, de qué proximidad, con que seguridad o duda se expresan, qué detalles ofrecen, etc.)-, por lo que, a desdén de una pretendida presunción de veracidad que el ordenamiento jurídico no atribuye a tales actuaciones ni podría nunca predicarse de actuaciones referenciales del funcionario público y no obedientes a su personal y directa comprobación, la información obrante en las actuaciones ha de reputarse como insuficiente, y, por ello, injustificada la suspensión del derecho prestacional económico".* O en sentencia de 11 de septiembre de 2003, en la que afirma que *"no puede deducirse una prueba plena, satisfactoria ni convincente de tal residencia como continuada y estable, y ello por la sencilla razón de que su testimonio en el proceso se limita a ratificar de manera formularia y abstracta el contenido de la actuación puntual documentada en el expediente que se les atribuye, (actuación ajena a este proceso y que no se documenta en él), sin llegar a hacer una concreción verdaderamente circunstanciada de su informe documental, que arroje luz sobre el fundamento y fuente de ciencia que anima la afirmación de residencia compartida entre madre e hijo en la fecha de 7 Enero de 2.000 en que se centra. Simplemente el Agente nº NUM003 afirma, con un lacónico "sí", en su comparencia celebrada en estos autos en fecha de 15 de Enero de este año, -folio 66 del ramo de prueba actor-, haber informado sobre la residencia del actor en la vivienda de la CALLE000 , y bien por desmemoria justificada o bien por otras observaciones adicionales, queda oscurecido el origen de la aseveración".*

4. Azkenik, etetearen atzeraeraginaren zuzeneko ondorio gisa, prestazioen etetea ezartzen duen ebazpena jakinarazteko idazkiarekin batera, erreklamatzailari okerreko kobrantzengatik pilatutako zorraren berri eman zioten (4.918,92 euro). Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 57. artikulua eta etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuaren 35. artikulua ezartzen dute modu okerrean jasotako zenbatekoak kobratzeko espediente berriari hasiera eman behar zaiola, beraz, etetea ez den beste prozesu bat abian jarri behar da. Horrek esan nahi du, beste kontu batzuen artean, pertsona horri, espediente berria hasi ondoren,



egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan epe bat emango zaiola. Arabako Foru Aldundiak ez du eginbehar hori bete (egia esan, inguruabar hori arrazoi bera dela-eta Ararteko erakundean jasotako kexa askotan errepikatu da), hortaz, dagoeneko pairatzen zuen babesgabetasun egoera okertu egin da.

Horrez gain, aintzat hartu behar da erreklamatzailak hainbat prestazio jasotzen dituela. Prestazio bakoitzari buruzko okerreko kobrantzen espedienterik ez dagoenez eta ebazpenaren idazkian zorraren zenbateko osoa jakinarazi ziotenez, hau da, xehatu gabe, erreklamatzailak ez du ezagutzen pilatutako zorraren jatorria, ezta oinarria ere.

Zentzu horretan, uste dugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62.1.e artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko litzatekeela. Artikulu horren arabera, erabat baliogabeak diren administrazio egintzen artean honako hauek daude *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz”*.

5. Gure aburuz, etetea modu irregularrean burutu da, zantzu ahul bat besterik ez baita oinarritzen. Inguruabar horrek 18/2008 Legearen 27. artikuluan ezarritako kautelazko etetea eragin behar izan zuen. Izan ere, legeak mekanismo hori berariaz ezarri du jasotzailearen esku irregulartasunen bat egon dela susmatzen den kasuetarako.
6. Zantzu ahul horietan ere oinarrituta, aldundiak uste du 2009ko abuztuaren 1ean harremana existitzen zela. Horri buruzko datu objektiborik ez zegoenez, Arabako Foru Aldundiak irizpiderik murriztaileena aplikatu zuen, prestazioak *ab initio* eten baitzituen (prestazioak 2009ko uztailaren 17an ematen hasi ziren; beraz arrazoiak sortu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera eten egin zituzten, 18/2008 Legearen 26.2. artikulua). Irregularitasuna bizikidetzaren unitatean egondako aldaketak ez jakinaraztean datza (18/2008 Legearen 19.1.f artikulua), beraz, hauxe da jarraitu behar izan zen prozedura: 2010eko urtarrilaren 28an prestazioak kautelazko etetea burutu, hau da, irregulartasunaren zantzuen berri izan zutenenean eta, ondoren, harreman bat zutela egiaztatzen zuten frogak gehiago aurkeztuz gero, etetearen atzeraeraginezko ondorioak abian jarri, ondorio horien hasiera harremana hasi zen data frogatuan ezarriz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

17/2011 GOMENDIOA, ekainaren 13koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari egina

1. Erreklamatzailaren eta pisu-kideetako baten artean bikote harremana dagoela egiaztatzeko zantzuak besterik ez daudenez, eteteak kautelazko





izaera eduki dezala eta, ondorioz, okerreko kobrantzengatik pilatutako zorra baliogabetu dezan eta erreklamatzaileri jaso ez dituen zenbatekoak itzuli diezazkion.

2. Bikote harremana daukatela egiaztatzeko froga eztabidaezinak aurkeztuz gero, harremanaren hasiera data frogatua erreferentzia gisa erabili dadila eteteari hasiera data ezartzerako orduan.
3. Modu bidegabean jasotako zenbatekoak eskatzeko espediente berrien hasierari buruzko araudia modu sistematikoan bete ez denez, araudiaren ez betetzea gertatu da eta babesgabetasuna sortu da, beraz, araudi hori betez, etete bakoitzak eragin duen okerreko kobrantzen gaineko espediente berriei hasiera eman behar zaie; kasu honetan bi espediente, bat diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokiona eta, beste bat, etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokiona. Hori guztia dela-eta, 30/1992 Legeak 62.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki, okerreko kobrantzengatik pilatutako zorra baliogabetu beharko litzateke.

